



# Elurrak Tolosaldea eta Leitzaldea zuritu du, arazo larririk sortu gabe

**ERAGINA** ▶ A-15 autobia itxita egon zen goizean;  
Bidegoianen hurrek ez zuten eskolarik izan ▶ 2



Elurrak inguruko paisaiak zuri-zuri utzi zituen; argazkian, Berastegiko ikuspegi ederra. IMANOL GARCIA



JAIONE ASTIBIA

## Kolore bizienak izan dira Ihoteetako azken egunean

**LEITZA** ▶ Umeak izan ziren nagusi egunez  
kalejira elurretan, dantza eta txokolatearekin;  
Erasote auzoan eskean aritu ziren batzuk ▶ 7

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean  
**GORROTXATEGI Edertasun Zentruak** oparitutako
  - LPG (Ioditasuna tratatzeko saioa) edo
  - Laser bidezko depilazio saioa zozketatuko ditugu



Nagusia, 2 - 1. • TOLOSA • 943 67 57 39

## VILLABONA ▶

## Presoen inguruko mozioa aztertuko da gaur bilkuran

Gaur 20:00etatik aurrera Villabonako Udalean presoen egoeraren inguruko mozioa aztertuko da. Herriko presoen aldeko taldeak aurkeztu zuen joan den astean bere mozioa eta EAJk berea. Bi alderdien arteko negoziaketaren ondoren mozio bakar bat mahai gainean jarri dute eta hori aztertuko da gaurko bilkuran. Amnistiaren aldeko mugimenduak dei zabala egiten du bertan parte hartzera, dispertsioaren aurkako aldarria eginez. Bide batez, gogorarazten du ere, Oscar Zelarain herritarra txapeon dela astelehenetik aurrera. Hamar egun eman go ditu egoera horretan preso billabonatarrek.

## VILLABONA ▶

## Biltokikoan asanblea orokorra etzi

Villabonako Biltoki jubilatuta elkarteak bere urteroko asanblea orokorra egingo du etzi, hilak 28. Lehenengo deialdia arratsaldeko 17:30ean izango da eta bigarren deialdia 18:00etan.

## ASTEASU ▶

## Herriko festei buruzko lehen bilera bihar

Aurtengo San Pedro jaiak antolatzen joateko lehen bilera egingo da bihar Kultur Etxean. Gonbidatuta daude parte hartzera horretarako interesa duten herritar guztiak. Bertan herritarrek egindako proposamenak jaso eta aztertuko dira, esaterako. Bileraren arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

## IBARRA ▶

## Hautesle zerrindak ikusteko aukera

Ibarrako Udalak herritar guztiei jakinarazi nahi die indarrean dauden hautesle zerrindak jende aurrean ezarritako duela hilaren 28a arte. Epe honetan, hautesle zerrindak beharrezkotzat jotzen diren murtziloak aurkeztu ahal izango dira.

## ELURRA ▶



Berastegi. Ingurunea ederki zuritu zuen elurrak. I. GARCIA



Berastegi. A-15 moztuta izan zen goizean. I. GARCIA



Tolosa. Uzturren ikuspegia San Frantzisko ibiltokitik. I. GARCIA



Leitza. Kaleetaraino iritsi zen elurra. J. ASTIBIA



Bidegoian. Haurrek gozatu zuten eskolarik gabeko eguna. I. GARCIA

# Paisaia zuri zuri

Elurrak bi eskualdeetako bazterrak zuritu ditu, arazo larririk sortu gabe

IMANOL GARCIA

**L**eitzalde herenegun zuritu ondoren, elurra iritsi zen atzo Tolosaldeko herrietara. Ez zuen egin elurte handirik, baina bai inguruetako paisaia zuritzeko adina.

Atzoko goiza, eguraldi iragarleek esan bezala, elurra izan zen protagonista eta gaur eta etzi gutxienez ere horrela jarraituko du izaten. Errepide-

etan ez zuen arazo handirik sortu, A-15 autobian izan ezik. Goiz partean itxita egon zen bi norabideetan Gipuzkoako zatia. Eguerditik aurrera irekitzea lortu zuten eta arratsaldean zehar mantendu zen irekita.

Bestalde, Bidegoiango haurrek ez zuten eskolarik izan, irakasleek ezin izan zutelako herrira iritsi. Halere, arazoa goiz goizean izan zen, elurra kentzeko makinek egindak la-



Albiztur. Ardi zuriak paisaia zuriarekin nahasten ziren. I. GARCIA

nek errepidea garbitu baitzuten.

Elurrak hotza izan zuen larrean. Leitzako Luisen Borda baserrian hartutako neurrien arabera, atzoko temperatura altuena zero gradu izan zen eta baxuena lau gardu zero azpi-

tik: orain arteko tenperatura baxuenak. Baina, eguraldi iragarleek esan dutenez, oraindik txarrena etortzeko dago, batez ere gaur eta bihar. Beraz, ez bada guztiz beharrezkoa autorik ez hartzea gomendatzen du Herrizaingo Sailak.

KULTURA ▶

**EGITARAUA ▶ URTARRILETIK EKAINERA, LEIDORREN**

**URTARRILA**

'Troika'. Et Incarnatus orkestraren emanaldia. Etzi, ostirala, 20:15ean. Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta.

**OTSAILA**

'Ezet lepoa jarri'. Txalo produktzioak-en ekoizpena, Kanpingags taldearen eskutik. Otsailaren 18an taularatuko dute. 'Ezequiel'. Ander Lipus

aktorearen eta Sagarroi taldearen antzezlan musikatu. Korrika-AEK bekaren akzesita irabazi du lanak. Otsailaren 25ean izango da.

**MARTXOA**

**Galtzaundiren saio poetikoa.** Martxoaren 4an egingo dute errezitaldia.  
**Benito Lertxundi.** Bakarlarioriotarrak diskoa grabatuko du Leidorreko zuzeneko emanaldian, martxoaren 11n.  
**Gorringo.** Taldeak bere

antzezlan berria estreinatuko du, martxoaren 18an.

**APIRILA**

**Bide Ertzean.** Tolosako taldeak *Esan bare* bere azkeneko diskoaren doinuak joko ditu, apirilaren 8an.  
**'Pisa la raya'.** Picor taldearen antzezlan apirilaren 15ean izango da ikusgai.  
**Gari.** *O-tik* diskoa aurkeztuko du, apirilaren 22an.  
**'Decameron'.** Apirilaren 29an eskainiko dute antzezlan.

**MAIATZA**

'Pas de Basque'. Argia dantza taldearen emanaldia maiatzaren 6an izango da.  
**Pyrineos Jazz Orchestra.** Kontzertu didaktikoa eskainiko dute, maiatzaren 27an.

**EKAINA**

'Jazz' eta 'blues' jaialdia. Ekainaren 10ean.  
**Dantza tailerra.** Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen emanaldia, ekainaren 18an.

EKONOMIA ▶

**Gazte tolosar bat hil da lan istripuz Erreterian**

ERREDAKZIOA

Herenegun arratsaldean Tolosako J.M.U. gaztea hil zen Erreterian lan istripu batean, bere kamioitik hormigoi plaka batzuk deskargatzen ari zela. Gaztea bere kamioiko garabia ari zen erabiltzen pale bat deskargatzeko eta karga bere gainera erori zen, burua eta bularra harrapatuz.

Istripua 18:30ean gertatu zen Erreteriako Oartzun kaleko 11 zenbakiaren parean, Irun eta Pasaia kaleen artean berritzen ari diren faxada baten aurrean. Deskargatzen ari zen plakek 1,80 metroko luzera, 0,50 metroko zabalera eta 0,05 metroko lodiera zuten. Gainera erori eta handik minutu gutxira hil zen. Lekukoek hamabi plan-txa kendu zizkioten gainetik banan bana (pisu handia zutelako). Handik gutxira iritsi ziren osasun zerbitzuak, baina ezin izan zuten ezer egin.

Gazteak Oñatiko Jose Luis enpresaan egiten zuen lan. Eraikuntzako materiala garraiatzen zuen bere kamioian.

Herenegungo honekin urte hasieratik —lau astetan bakarrik— zortzi pertsona hil dira lan istripuz Hego Euskal Herria.

INAUTERIAK ▶

**Zaldunita bezperako danborrada entseguak**

ERREDAKZIOA

Hasi dira dagoeneko Zaldunita bezperako danborradarako entseuak. Gaur eta bihar, 20:00etan da hitzordua, Kultur Etxeko areto nagusian. Eta asteartean, otsailaren 1a, ordu berean, baina Pablo Gorosabelen.

**«Merezitako agurra» Leidorri**

Urteko lehen sei hilabeteko kultur egitaraua aurkeztu du Udalak; musika, dantza eta antzerki emanaldiak izango dira nagusi, Leidorri agur esan baino lehen

LEIRE MONTES

Leidor aretoari «merezitako agurra» eskaini nahi diote, eta horretarako kalitateko emanaldiak antolatu ditu Udalak. Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak eta Jokin Ansorena kultur teknikariak urteko lehen sei hilabeteko egitaraua aurkeztu dute. Haien esanetan, «emanaldi bereziak eta kalitatekoak ekartzea izan da gure erronka, aro hau amaitu eta Leidorri merezitako agurra emateko». Aretoko lanak hasi baino lehen, ekainera bitartean, musika, dantza eta antzerkia izango dira nagusi.

Musikaren arloan, *Et Incarnatus* orkestrak Troika Inauteriatariko kontzertua eskainiko du etzi, 20:15ean, Leidorren; Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatu du emanaldia. Martxoaren 11n, Benito Lertxundi abeslari oriotarraren saioaz gozatzeko aukera izango da. Kontzertu berezia izango da, gainera. Lertxundik Tolosa aukeratu du zuzeneko disko bat grabatzeko; Leidorreko emanaldirako bere ibilbideko kantarik esanguratsuenak aukeratu ditu oriotarrak. Tolosako Bide Ertzean taldeak etxean entzuteko aukera ere izango da: *Esan bare* azken diskoarekin arrakasta handia izaten ari dira tolosarrak, eta kanta horiek eta beste lanetako doinuak ekarriko dituzte Leidorrean, apirilaren 8an. Joserra Senperena pianojole donostiarra izango dute bidelagun emanaldian. Apirilaren 22an, Garik, Hertzainak zeneko abeslari ohia, *O-tik* azken disko kantak joko ditu Tolosan.

Pyrineos Jazz Orkestrak *Del tam tam al tom tom* kontzertu didaktikoa eskainiko du, maiatzaren 27an. Eta *jazz* eta *blues* jaialdiaz gozatzeko aukera izango da, ekainaren 10ean.

Antzerkien arloan ere «kalitatearen aldeko apustua» egin nahi du Udalak. Otsailaren 18an Txalo-k ekoizitako *Ezet lepoa jarri* antzezlan taularatu du Kanpingags taldeak; antzezlan berezi honetan ikusentzuleak protagonista bihurtuko dira, haiek erabakiko baitute amaiera. Ander Lipus aktoreak eta Sagarroi musika taldeak *Ezequiel* antzerki musikatu eskainiko dute otsailaren 25ean; Korrika AEK bekaren akzesita jaso du lanak. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* lan arrakastatsuen ondoren, bere obra berria taularatu du Gorringo taldeak, martxoaren 18an; Picor taldeak, berriz, *Pasa la raya* izeneko lana eskainiko du, apirilaren 15ean; eta apirilaren 29an, *Decameron* antzezlan izango da ikusgai.

Galtzaundi Euskara taldeak antolatutako poesia errezitaldia arrakasta handia izan zuen iaz, eta aurtan ere tankerako emanaldia iragarri dute. Martxoaren 4an eskainiko dute saio poetikoa.

Dantzari dagokionean, azkenik, era guztietako emanaldiak prestatu ditu Udalak. Argia dantza taldeak *Pas de basque* ikuskizun aparta eskainiko du maiatzaren 6an. Eta, ekainaren 18an, Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleek eskainiko dute emanaldia; saio horrekin amaituko da ekainera bitarteko kultur programazioa.



Kanpingags taldearen *Ezet lepoa jarri* antzezlanaren une bat. HITZA



Garik apirilaren 22an joko du; Benito Lertxundik marxoaren 11n. HITZA



Bide Ertzean, disko aurkezpenean; apirilaren 8an ariko dira. L.MONTES

**✚ ESKERTZA ▶**  
CESAREA ARROSPIDE ARRESEIGOR andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.  
Tolosa, 2005eko urtarrilaren 26a

**✚ ESKERTZA ▶**  
URSULA ARBILAGA ETXEBERRIA andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.  
Ibarra, 2005eko urtarrilaren 26a

**Ingeleseko irakasle bat behar dugu**  
Tel.: 943 67 00 52

GABIREL EZKURDIA ▶ GAIN-EKO KIDEA

# «Gaur-gaurkoz, Europan ez dago estatu izan gabe izaterik»

Orreaga Iritzi Taldeak antolatuta, hitzaldia eskaini zuen atzo udaletxean; Nafarroako Estatua berreskuratu behar dela dio, «EBren baitan bizirauteko»

## IRATXE ETXEBESTE

*Estatu okupatuak: Euskal Herria eta Europako konstituzioa* gai hartuta, hitzaldia eskaini zuen Orreaga Iritzi Taldearen eskutik Gabirel Ezkurdiak atzo, euskaraz, Tolosako udaletxeko batzar aretoan. 20:00etarako zuten egina hitzordua antolatzailerek, eta erredakzio hau ordurako ixteko bidean zenez, aurrea hartu zion HITZAK solasaldiari: Ezkurdiarekin aurretik lotu zituen hitzaldian jorratu beharrekoak. Besteak beste, «Europan zerbait izateko herri batek estatu izan behar» duela esan zien nazioarteko gaiak ikertzen diharduen GAIN kabineteke kideak bertara bildutako. Nafarroarentzat, Euskal Herriarentzat horixe nahi du berak, hain zuzen ere: herri askea izaki, Europan estatu izatera edukitzea.

**Otsailaren 20an Espainiako estatuan bozkaturako dutenari ituna deitzen diozu, eta ez konstituzioa. Zergatik?**

Europako Konstituzioa Maastriheko edo Nizako itunen gisakoa delako; pareka liteke Erromako tratatuarekin ere. Konstituzioak ez du balio juridiko handirik; beste itunetarik eratorritako elementu erretorikoz beteta dago, eta funtzio puntual bat baino ez du.

**Aldatu beharrekoa iruditzen zaizu, orduan?**

Urte gutxiaren barruan errefor-



OLATZ MITXELENA - OARSOLDEKO HITZA

matu beharko dute, eta errefor- ma hori estatutik gabeko nazioek eragingo dutelakoan nago. Izan ere, Europako Konstituzioaren arabera subobjektuak estatuak dira, eta bertan ez dute lekuri estatutik gabeko nazioek. Finean, estatuen Europa eraiki nahi dute hilabete eskas barru bozkatzeko den Europako Konstituzioaren baitan.

**Ez al luke horrek Europar Batasuna itxuraldatuko?**

Europar Batasuna sendo egituratuta dagoela uste du jende guztiak, baina ez da horrela. EB garapen prozesuan da: oso ondo garatu dute ikuspegi ekonomikoa, baina politikoa akats ugari ditu, esaterako.

**«Nafarroako Estatua berreskuratu beharra» dagoela defenditzen duzu, eta berebiziko garrantzia ematen diozu horri, gainera.**

Eskubidea izateaz gain, beharrezkoa ere bada estatua berreskuratzea. Batzuek uste dute ideia utopikoa dela hori, edota kapitxo bat; ez da horrela. Estatua berreskuratzea premiazko beharra da, hori delako gure herriaren biziraupena bermatuko duena, eskubide hori badagokigulako herri hau osatzen dugunoi, eta, batez ere, gaur-gaurkoz, ez dagoelako estatu izan gabe izaterik. Hots, Europan, zerbait izateko, beharrezkoa da estatu izatea.

## IBARRETXE PLANA

«Onartezina da bere oinarriengatik; herri galdeketak kontsentsu handi bat bideratuko du euskal gizartearen»

**Estatua sortu ez, eta berreskuratu egin behar du Euskal Herriak, hortaz?**

Hori da. Euskal Herria eta Nafarroako estatua gauza bera dira. Nafarroako estatua inbadi-tua eta okupatua izan da militar-ki 804. urtetik gaurdaino, eta egun ere estatu okupatu izaten jarraitzen du. Herriarrek jakin behar dute zer garrantzitsua den estatuaren existentziak jabetzea. Zeren eta Europako Batasunaren testuinguruan bizirautea nahi badugu, ezinbesteko du herri honek estatu izatea eta, era berean, Nafarroa euskal herriarren estatu gisa berreskuratzea.

**Ibarretxe Plana lagungarri izan al daiteke bide horretan?**

Taktikoki bai; subertsioa garatu dezaketen bide guztiak dira lagungarri. Ibarretxe Plana onartezina da bere oinarriengatik, besteak beste, nafar kontzeptua ez duelako aintzat hartzen eta ez delako batere operatiboa. Ibarretxek behin eta berriro esaten du herri galdeketa egingo duela, eta asmo hori ez bada gezurrezkoa, onuragarri izango da herri honentzat. Izan ere, euskal gizartearen kontsentsu handi baten bideragarritasuna bermatuko du, eta baita intsumisio interesgarria abiatzeko aukera ere.

**Espainiako estatuak zer erantzun izan dezake Ibarretxek planteatzen duen herri galdeketa aurrean?**

Herri kontsulta zapuztu dezake militarri, judizialki... nahi duen modura, baina Europar Batasunaren barruan ez du hain erraza inbasio militar bat burutzeta. Balkanetako kasua argigarria da ikusteko gisa horretako prozesuek indar handia dutela izan. Hala ere, Espainiako estatuaren erantzunak berdin dio: horri begira egon gabe, tresnak eta eszenatokiak sortu behar ditugu herri honek izan zuen estatua berreskuratzeke lana erabat bideragarria izan dadin.

GIZARTEA ▶

## Atzerritarren legeari buruzko solasaldia, gaur

*Atzerritarrei buruzko legea: atzerritarren erregularizazio prozesua* gai hartuta, hitzaldia eskainiko dute gaur Hel- du, etorkin atzerritarrei laguntza juridiko-soziala emateko zerbitzuko kideek Tolosako Udalaren laguntzarekin. 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan izango da.

GIZARTEA ▶

## Hautesle-errola zerrendak udaletxean daude

Tolosako Udalak herritarrei jakinarazi nahi die indarrean dagoen hautesle-errolako zerrendak jendaurrean jarri- ta egongo direla ostirala, hil- lak 28, bitarte udaletxeko be- heko solairuan. Erreklama- zioak egin nahi izanez gero, NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotoko- pia aurkeztu behar da udale- txeko Estatistika departa- mentuan (3. solairua).

TEKNOLOGIA ▶

## Internet sarea eta teknologia berriak bultzatu nahian

Industria, Turismo eta Mer- kataritza Ministerioak tekno- logia berriak eta Internet sa- rea ezagutzera emateko kan- paina burutuko du gaur. Her- ritar guztiei bideratuta da- go, eta teknologia berrien erabilera bultzatzea ere ba- du xede. Kolektiboekin eta el- kartekin ikustaldi hitzar- tuak egingo dituzte; ikustal- diak hitzartu ez dituztenek 19:00etatik 21:00etara izan- go dute zerbitzua erabiltzeko aukera. Autobusa Triangulo- an jarriko dute horretarako.

EUSKARA ▶

## Korrika 14ren inguruko bilera etzi izango da

Tolosaldeko Korrika ardura- dunek gaurko deitu zuten es- kualde mailako bilera etzira atzeratu egin dute eguraldia- gatik. Herrietako arduradu- nei Korrikaren berri emateko eta ahalik eta herri gehie- ntan batzordeak sortzeko da. Arramele-AEK euskaltegia- n izango da, 20:30ean.

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Monitorea.** Asteasuko kiroldegia aerobik-eko monitore bat behar du. Telefonoa: 943 69 34 00. 18:00etatik 21:00etara.

**Irakasleak.** Irakasleak behar ditugu klase partikularrak emateko. Ikasgai eta maila guztiertarako. Curriculum Vitae- a bidali helbide honetara: donostia@acadomia.es.

**Etxeke lanak.** Pertsona bat behar da goizez, 5 orduz, etxeke lanak egiteko. Deitu 669 21 33 37 zenbakira 14:00etatik 21:00etara.

**Zaintzailea.** Neska edo andre bat behar da ume bat zaintzeko eta etxeke lanak egiteko. Deitu 943 67 58 95 zenbakira 19:00etatik 21:00etara.

**hilberriak ▶** eskelek hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



**Juanito Market Urkola**  
GAZTEA

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Balantxaka-kolaganak

TOLOSA, 2005eko urtarrilaren 26a

KIROLA ▶

# Eskualdeko zaldunak hoberenen artean igandeko lasterketan

Ondarretako hondartzan izan zen lasterketan Tolosaldeko bost lasterkari sailkatu ziren lehenengo zortzi postuetan



Jende ugari hurbildu zen Ondarretaraino igandeko lasterketan, zaldi eta zaldunekin gozatzera. HITZA

## NOELIA LATABURU

Igeldo eta Santa Klarako irlen babesean, zaldi lasterketa egin zuten igandean Donostiako Ondarreta hondartzan. Eguraldia ere lagun izan zuten lasterketa korritu zuten zaldunek, ez baitzen euririk izan goizean,

eta giro polita sortu zen hiriburuan, izan ere, jende andana hurbildu zen bertaraino. Lasterkariak, gainera, pozik azaldu ziren Ondarretako Jai Bartzordearen antolamenduari.

Lau tanda egin ziren, bakoitzean sei zaldun eta bere zal-

diekin. Tanda bakoitzean aritutaok hondartzako zirkuituari hiru bira eman zizkieten, 550 metrotakoa bakoitza eta talde bakoitzeko lehenabiziko biek finalerako txartela lortu zuten. Zirkuituak kurba asko izan zituen, baita salto txiki bat ere. Hondarraren egoera oso ona

## DONOSTIAKO FINALA ▶

### SAILKAPENA

Zalduna	Herria
1. Iñaki Izagirre	Asteasu
2. Aitor Odriozola	Orereta
3. Xabin Lazkano	Getaria
4. Peio Saizar	Orio
5. Xabin Gogorza	Ibarra
6. Garikoitz Lasa	Bidania
7. Jose Manuel Iriarte	Leaburu
8. Millan Telleria	Albiztur

zen zaldien onurarako, horrela ez bait ziren hondoratzen. Finalean, beraz, zortzi zaldun aritu ziren ligaxkarako balio zuen lasteketa honetan eta hiru bider egin behar izan zuten ere zirkuitua.

### Partaidetza goruntz

Azken aste honetan beste hiru zaldun batu dira ligaxkara, aurreko astean gertatu zen bezala. Guztira, orain, 24 partaidea dira, baina antolatzaileek argi utzi nahi izan dute ez dituztela zaldun gehiago onartuko. Hauetatik zortzi eskualdekoak dira. Iñaki Eizagirre asteasuarra (8 punturekin), Garikoitz Lasa eta Anjel Altuna bidaniarrrak (4 eta 2 punturekin), Xabin Gogorza ibartarra (3 punturekin), Ion Lizaso asteasuarra (2 punturekin), Albizturko Millan Telleria (2 punturekin), Leaburuko Jose Manuel Iriarte (puntu 1) eta Zizurkilgo Axier Mujika (0 puntu).

Halaber, antolatzaileek arauak errespetatu daitezela eskatu diete hasieratik daudenei zein beranduago sartu direnei. Zaldun batek lasterketa batetik bestera zaldia aldatuz gero, lasterketan eroriz gero eta karrera ez bukatzeagatik ere ez duela punturik eskuratu azaldu zuten.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Azpiroz, M. L. Amaroz

auzunea 9 (Tolosa).

943 67 51 18

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

## ALEGIALDEA ▶

### Saharara janaria bidaltzeko azken eguna da gaur

Saharako Karabanan bidaltzeko janari bilketa gaur amaitzen da Amezketan, Abaltzisketan eta Baliarrainen. Lehenengo bi herriek eskolak eta udaletxeak eskaintzen dituzte bilketa gune bezala. Baliarrainek, berriki, udaletxean egiten dituzte bere bilketak. Eskatzen diren elikagaiak hegaluzea oliotan, konpresak eta azukrea dira. Udaletxeke zerbitzuek dei egiten diete biztanleei beraien laguntza eman dezaten azken egun honetan.

## ALTZO ▶

### Gaur hasiko dute Tecasako langileek greba, hiru egunetz

Tecasako langileek gaur hasiko dute greba, enpresak kaleratutako bi langileen egoera salatuz. Ostirala bitartean enpresako langileek ez dute lanik egingo, eta enpresako atarian bilduko dira pikete informatiboak egiteko eta bere aurkakotasuna azalduz. Aurreko astean ere bildu ziren bi kaleratuen lankideak protesta egiteko eta enpresaren jarrera salatuz. Bi langileak kanpora lan egitea joateko ezetza eman ondoren kaleratu zituzten.



Aurreko ostiraleko Tecasako langileen konzentrazioa. N. LATABURU

## IBARRA ▶ KIROLAK



6-2 galdu zuen Ibarrek Gasteizen larunbatean. I.TERRADILLOS

# Galdu egin zuen Ibarrek Gasteizen

## Epaillearen hutsegiteek zeresana izan zuten partida erabakitzerakoan

IÑIGO TERRADILLOS

Ez da urte hasiera ona izan Ibarra areto futbol taldearentzat, izan ere larunbatean Gasteizen jokaturako partida 6-2 galdu baitzuen.

Pradosek bajaran jarraitzen du, eta Karrera ez zegoen bere onenean, beraz, taldeak beste partidetan baino lan handiagoa egin beharra zuela bazekien alde aurretik.

Bi taldeak erasoari ekin zioten hasieratik, baina etxeko taldea izan zen Mikel Sanz Ibarra-koen atezaina gaiturik eta lehendabiziko gola egin zuena. Cristian eta Karrerak buruturiko kontraeraso batean segituan iritsiko zen berdinketa Karreraren eskutik hain zuzen ere.

Zazpigarren minutuan Ate-neak bere jokoak fruituak ematen dituela erakutsiz aurretik jarri zuen berriro marka-

galdua. Atsedendaldirako lau minutu geratzen zirenean, Cristian kontraerasoan etxekoek euren atean sartu zuten baloia berdinketa eraginez. Une honetatik lehenengo zatia amaierararte partida erabaki zela esan liteke.

Etxekoek falta argia egin zuten, baina epaileak ez zuen penalti bikoitza adierazi. Gainera, hurrengo jokaldian etxekoek beste falta bat egin eta epaileak ez zuen ikusi eta 3-2koa egiteko balio izan zien etxekoek. Ibarra-koak, ezin sinistu zeuden gertatutakoarekin eta horretan bi gol jarraian egitea lortu zuten Ate-neak. Bigarren zatia, berriz, txarra izan zen, eta soilik Ate-neak sartu zuten gola azpimarra daiteke.

Jubeniletan, Lauburukoak nahiko larri aritu baziren ere irabaztea lortu zuten 11-7ko emaitzarekin eta lehenengo postuan jarraitzen dute.



## Herriko presoek itxialdiekin bat eginez

**LEABURU** ▶ Igande eguerdian 30 minutuko kontzentrazioa egin zuten herritarrek Andoni Otegi Eraso preso leaburuarra egiten ari zen itxialdiarekin bat eginez. Izan ere, euskal preso politikoen kolektiboak, bai Espainiako zein Frantziako espetxe guztietan borrokaldi bati ekin dio 2005. urtearen hasieratik bere aldarrikapenak exijituz. Borroka ekimen honek presoek kolektiboari «ezartzen zaion isolamendu politikorekin bukatu eta euskal preso politikoei hitza ematea du helburu», presoek aldeko mugimenduak jakinarazi duenaren arabera. Honen harira, «herri honen zatia diren heinean, prozesuan parte hartzea

bermatuko duen egoera ahalbideratzeko estatus politikoa» exijitzen dute. Espainiako eta Frantziako espetxeetan dauden 700dik gora preso ari dira parte hartzen protestaldi honetan. Urtarrilaren 3an egin zuten planto orokorra eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko itxialdiak egiten dihardute. Bigarren txandan Leaburuko Andoni Otegi, Zizurkilgo Jon Tapia eta Elduaingo Ana Belen Egues izan baziren itxialdia egin zutenak, astelehenean hasi zen hirugarren txandan Aitor Agirrebarrena lizartzarrak eta Oskar Zelarain villabonarrak jarraituko dute protestaldiarekin datorren otsailaren 3a bitarte. IÑIGO TERRADILLOS

## TXARAMA ▶

### Saharako argazkiak eta hitzaldia bihar

Leaburutik Saharara joandako ateratako argazkiak ikusteko aukera izango da bihar 19:00etan Txaramako elkartean. Eta argazkietan hango bizitzaz jabetzeaz gain, bertako errefuxiatu kanpamenduetan egun batzuk igaro zituztenek euren bizipenak kontatuko dituzte sahararren egoera zuzenago ezagutzeko.

## IBARRA ▶

### Gaur ekingo dio berriro Ibarra zineklubak

Ibarra Gaztetxean berriro ere gaur ekingo diote zineklubari. Orain arte ostegunetan izaten zena hemendik aurrera asteazketan izango da beraz. Gaur 21:45ean doan ikusteko aukera izango den filma *Soñadores* izeneko da. Bernardo Bertolucci zuzentzen du eta Erresuma Batua, Frantzia eta Italian du jatorria.

## BELAUNTZA ▶

### Zakur bat aurkitu zuten herenegun herrian

Herenegun zakur bat agertu zen Belauntzan, herrian bertan. Zakurra marroixka da eta erdi tamainakoa dela esan daiteke. Galdu duenak Udaletxera joan edo bertako telefonora (943 67 43 66) deitu dezake zakurreratik galdetzeko, edo bestela aurkitu duen belauntzarrari dei diezaiotke, 943 67 33 45 telefono zenbakira.

## iragarki laburrak ▶



**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

**Belauntza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriekin eta erabat berriua dago.

**Donostia.** Rodil zeharkalean,

apartamendua salgai. Berritua; kanpoaldera.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria salgai.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioia

salgai, 300, 450, 625 eta 900 m<sup>2</sup>-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

**Tolosa.** Agintari kalean 75 m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 155 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m<sup>2</sup>-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua. Berritzeko premia.

**Tolosa.** Iurren etxebizitza salgai; hiru

logela, sukaldea, egongela, komona, bainugela eta trasteleku. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Erdigunean etxebizitza handia igogailuarekin, garajerik gabe.

**Tolosa.** Zabalaretan. 135 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza trastelekuarekin. Garaje bikoitza aukeran.

**Tolosa.** Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorosabel, Iurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

LEITZA ▶ IHOTEAK

# Ihoteetako azkena, koloretsuena

Kolore biziz eta zuriz jantzitakoa joan da asteartekoa, Erletako ikasleen kalejirarekin batera, elurra ere nagusi



Joaldunen kulunkek ireki zuten bidea atzokoan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo, astearte ihote, *Pesta Tiki*-en azken egunean, bezperan hasitako elurraz gain, umeak izan ziren nagusi, egunezko

festan. Gauekoan, nahi izan zuten guztia. Bitartean eskelari talde bat, Erasote auzoan ibili zen eskean.

Bezperan baino gutxiago, baina 10:00ak aldera, eskelari

koadrilatxoa Erasote auzoko baserrietara joan zen eta han ibili ziren, txistu eta danborraren soinuak, batetik bestera. Egun honetan, ordea, baserri gutxiago ere badira eta, lasaixeago ibili ohi dira eta auzo horretako ohiturari jarraituz, kontu kontari eta jan edanaz gain, jokoan ere aritu izan ziren. Hala ere, Aurrera elkartean egin zen bazkaritarako herrira itzuliak ziren.

Bezperakoak, gauean etorri ziren, ibilbide osoa egin zuen jito-karro eta guzti. Jendea gustura ageri zen, «elurraren argitan» ibili zirela esanez.

Baina eskelariz gain, atzokoan eskol-umeek festa aparta egin zuten, goizean goizetik hasita. Erletan eskolarik ez zuten arren, hantxe ziren denak zintzo asko, izan ere txarangak bisita egin baitzien eta arratsalderako kalejirako azken prestatzizunak egiteko ere baliatu ziren.

Horrela, bada, elurra zela eta zalantzak izan bazituzten ere, joaldunek irekitako bideari jarraiki, maila guztietako ikasle, irakasle eta gurasoek kalejira koloretsu askoan ibili ziren:



Hotzari aurre eginez, kalejira koloretsua egin zuten herrian zehar. J. A.



Dantza saio bikaina egin zuten txokolatea hartu ondoren. J. ASTIBIA

zaku-zaharrak, piratak, dantzariak, txilabadunak... txarangaen doinuekin herrian barrena dantzan ibili ziren. Jaialdia Amazabal pilotalekuan bukatu zuten, dantza saioa eskainiz. Txokolate beroa hartu ondoren, dantzaldia izan zu-

ten, kanpoko haize eta hotzetik babestuta.

Iluntzetik aurrera, umeak eta gainerako guztiak ere, kutxa zaharretik ahalik eta arroparik gehien soinean jarri eta gaur goizerarte luzatuko zuten ihoteetako azken eguna.

LEITZA ▶

## 'Azti ikaslea' filma gaur arratsaldean zineman

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 17:00etatik aurrera *Azti ikaslea* filmea proiektatuko dute Leitzako zinema aretoan.

Film hau 2002koa da, eta 98 minutuko iraupena du. Kontatzen da, mutiko bat bere familiarekin beste hiri berri batera joaten dela bizitzera eta han ezagutzen duen lagun batek, azitia izaki, magiazko trukoak erakusten dizkio. Pixkanaka-pixkanaka hainbat gertakariren ondorioz, borroka gogor bati ekin beharrean aurkituko dira bidean hala biak ere.

LEITZA ▶ KIROLA

## Aurrera Lurraldeko lider da

Larunbatekoa ere, Unibertsitateko taldearen aurka, 2 eta 1-eko emaitzarekin irabazita, lortutakoarekin gustura daude

J. ASTIBIA

Aurrera futbol taldea Lurraldeko I. taldeko sailkapenean lehendabiziko lekuan jarri da, asteburuan Nafarroako Unibertsitate Pribatuko taldearen aurka jokatutako partidua irabazi ondoren.

2-1ekoarekin bukatu zen Arxikilen larunbatez egin zuten partidua. Hasiara hasieratik jaun eta jabe egin ziren etxekoak, gol aukera asko sortuz eta jokaldi polit askoak burutuz. Aukerak bai, baina, ez zuten lortzen golik egiterik, ordea. Iruindarrak, berriz, behin bakarrik iritsi ziren hauen atera,

22. minutuan, eta gola egin zuten. Eta horrela joan ziren atsedenera, kezkatuta.

Baina, urduritasunak alda-geletan utzita, bigarren zatiko 10. minuturako Jabi Urriagak berdinketaren tantoa egin zuten, eta markagailua goitik behera aldatuz, Olanok garai-penekoa.

Horrela, bada, partiduko hiru puntuak etxean gelditzea lortu zuten Salazarrek eta bere mutilek eta oso balizko puntuak gainera: sailkapenean buru daude Aurrerakoak.

«Oso gustura gaude egindako partiduekin. Erreparo pis-ka bat ematen zigun talde ho-

nek, oso indartsua delako. Baina hasieratik indarrez atera gara, zentratuta eta nagusitu egin gara, nahiz eta baloia sareetara bidaltzea kosta zaigun. Ez genuen azken ukituan asmatzen eta urduri ere jarri gara. Baina, azkenean lortu ditugu golak eta merezitatekoa izan da garaipena», zioten partidua zuzendaritzatik.

Orain lidergoari eutsi egin behar diotela azaldu zuten bestalde: «oso garrantzitsua da taldearentzat, egin duten lanaren sari modura, buruan daudela ikustea. Indarrak ematen ditu eta horrela mantendu behar dugu».

LEITZA ▶

## Barriolak eta Bengoetxeak final-laurdenei ekinen diete

J. ASTIBIA

Bi-bitako Txapelketako ligakako azken partidua elkarren aurka jokatuta, orain final-laurdenekin hasiko dira.

Bigarren fase honetako lehen partidua jokatuko dute Abel Barriolak eta Titin III ak, Xala- Lasa III ren aurka, Urdulzen, ostiral honetan bertan.

Oinatz Bengoetxea ere Bizkai aldera joan beharra izan da biharamonean, Barakaldon ari beharra baita larunbatean, Berasaluzeko VIII. eta Ruizen aurka, Beloki bitokidearekin.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 26a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kaltetzaileak, Adura, Albitzu, Alkiza, Alkiza, Alkiza, Amerleña, Anorota, Balaran, Beasain, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itzalegi, Itza, Larrin, Leizola, Lizaso, Oteiza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
besteriak: Leizaldekoko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saia

943

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroa

6

hotzena

2

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ibarra.** *Es que, guk horrela hitz egiten dugu* hitzaldia Kike Amonarriz soziolinguistaren eskutik. 18:30ean Kultur Etxean. Uzturpe Ikastolaren Kultur Astean.

**Tolosa.** KZguneak Internet ikastaro hauek antolatu ditu otsailerako: 1etik 18ra, 18:00etatik 20:00etara, 21etik 25era 9:00etatik 13:00etara edo 18:00etatik 20:00etara.

**Tolosa.** *Atzeritarrei buruzko legea. Atzeritarren erregularizazio prozesua* hitzaldia udaletxean 20:00etan.

**Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradaren entsegua Kultur Etxean 20:00etan.

**Tolosa.** Korrika 14ren bilera ostiralera atzeratu dute eguraldiagatik. Arramele-AEK euskaltegian izango da 20:30ean.

**Tolosa.** Alpino Uzturrek elurretara joateko autobus antolatu ditu otsailaren 5-6an Beretera, Marxa parte hartzeko. Autobusa eta pensio erdia aterpean eskaintzen dute.

Informazioa eta izen-ematea Gudari 5, behean.

**Villabona.** Igandean Ehiza Txiki Txapelketa txakurrarekin izango da. Izen-ematea osteguna bitarte Eizmendi armadendan 18 eurotan.

### ERAKUSKETA

**Alegia.** Jose Manuel Oiartzabal. Argazkiak. Jubilatuen elkarte.

**Tolosa.** Txomin Txueka. Argazkiak. Aranburu Jauregia.

**Tolosa.** Carmelo Ortiz de Elgea. Koadroak. Aranburu Jauregia.

**Tolosa.** Jose Enrique Ceberio. Koadroak. Lanbroa taberna.

**Tolosa.** Nekane Fernandez. Koadroak. Sorron denda.

**Tolosa.** Manuel Arretxe. Koadroak. Saikin taberna.

### ZINEMA

**Ibarra.** Bernardo Bertolucciren *Soñadores*. Gaztetxean 21:45ean.

**Leitza.** *Azti ikaslea* filma 17:00etan zineman.

**Tolosa.** Stephan Frears-en *Negocios ocultos*. Bihar 21:30ean Leidor zineman.

# Bere ekarpena, saritua

**TOLOSA** ▶ Karmele Goñi saritu du Sabino Arana Fundazioak «gizarteari egindako ekarpenagatik»; Bilboko lehen ikastola sortu zuen etnografoak

JOXEMI SAIZAR

Sabino Arana Fundazioak igandean eman zituen Bilboko Arriaga antzokian urteroko sariak «gizarteari ekarpena egiten dieten pertsona eta erakundeei». Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohia (sari berezia), Dave Bieter Idahoko (AEB) alkatea (Euskaldunak munduan saria), Euskal Herriko sukaldariak (Gizartea saria), Kukuxumusu enpresa (Ekonomia saria) eta Karmele Goñi etnografoa (Bizitza osoko ibilbidea saria) izan dira aurten sarituak.

Karmele Goñi Auzmendi «bere bizitza osoko euskal kulturaren eta hizkuntzaren aldeko dedikazioagatik eta jarraitkortasunagatik, eta, zehazkiago, etnografia ezagutarazteko egindako ekarpenagatik» saritu dute.

Aurreko urte batzuetan New Yorkeko suhiltzaileak, Nunca Mais eta Quicksilver enpresa saritu izan ditu Sabino Arana Fundazioak, beste batzuen artean.

### Euskara eta kultura

Tolosan jaioa 1926an, lehen ikasketak Immaculada Concepcion ikastetxean egin zituen. Emakumea izanik zailtasun ugari izan zituen edozein lanetarako, baina ahal izan zituen arlo guztiak lan zituen. Ski Club Tolosanorekin Berastegi, Aralar eta Candanchura joaten zen eskiatzera, adibidez.

Aspaldidanik Bilbon bizi da Goñi, ezkondu zenetik. Gazte-



Karmele Goñi Auzmendi tolosarra izan da Sabino Arana Fundazioak saritu duenetako bat. BERRIA

rik hasi zen etnografia lanetan eta, besteak beste, Jose Migel Barandiaranen ikasle eta laguntzaile izan zen. Aranzadi zientzia elkarteko etnografia eta arkeologia idazkari izendatu zuten 18 urte zituela —emakume bakarra eta, alde handiz, gazteena—.

Inmigrazioari buruzko ikerketa soziologikoa egin zuen 1954an, gehienbat Extremaduratik Tolosara burni-bidea egitera etorritako langileekin. Jolasak, arkitektura, sinismenak, emakumeen janzkera eta beste hainbat gai jorratu ditu, *Etni-*

ker aldizkarian argitaratu izan ditu bere lanak.

Diktaduraren urteetan giza eskubideen defentsarekin eta euskal kulturarekin eta euskara babestearekin harremana zeukaten erakundeak sustatu eta lagundu zituen. Besteak beste, Bilboko Lehen eta Biga-

rren Hezkuntzako lehen ikastola —Resurreccion Maria de Azkue ikastola— sortu zuen beste zenbait lagunekin batera. Deia egunkariaren bazkide sortzaileetako da. Bilboko Museo Etnografikoko lehendakaria eta zuzendaria izan da 1987tik duela gutxi arte.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**

Bartolome Tolosa. Zorionak aitona. Zure hiru biloba Ander, Oihana eta Asier eta familia guztiaren partetik muzu handi bat.



**ANIMO AGURRA**

Aupa Oskar. Txapean, balina izarra beti aurretik, zuen helburua lortu arte. Rusion sendia.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**HITZA-KO  
JERTSE  
BERRIA  
ESKURA**

Gertuen duzun  
egoitzan  
lor dezakezu

Modelo eta kolore  
ezberdinak  
neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!  
TOLOSAko eta LEITZAko  
egoitzetara

